




ESTADÍSTIKA

A r t e Eszenikoen Programatzaileak



Aurkibidea

	Sarrera metodologikoa	3
1.	AGENTEEN EZAUGARRIAK	6
	1.1. Programatzaileen mapa	6
	1.2. Ibilbidea	7
	1.3. Edukiera	8
2.	DIMENSIO EKONOMIKOA	10
	2.1. Diru-sarrerak eta gastua	10
	2.2. Enplegua	12
3.	JARDUERA	15
	3.1. Jardueraren bolumena	15
	3.2. Aretoetako jardueraren ezaugarriak	16
	3.3. Jaialdietako jardueraren ezaugarriak	20
4.	BERTARATUAK	22
	4.1. Bertaratu kopurua eta bildutako diru-kopurua	22
	4.2. Aretoetara bertaratzen diren lagunen kopuruaren eta aretoetan gauzatutako jarduerarekin bildutako diru-kopuruaren ezaugarriak, eskaintza motaren arabera.	24
	4.3. Jaialdietara bertaratzen diren lagunen kopuruaren eta jaialdietan gauzatutako jarduerarekin bildutako diru-kopuruaren ezaugarriak, eskaintza motaren arabera.	27

SARRERA METODOLOGIKOA

Arteei buruzko Estatistika abian jartzearen helburua arte eszenikoen, musikaren eta ikusizko arteen sektoreek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten errealitatea zein den jakitea izan da. Zehaztasunez ezarri nahi izan da agenteen mapa (lurraldean duten kokapena, sortze-urtea) eta, halaber, agente horien jarduera ekonomikoaren, sortzen duten enpleguaren eta produkzio-jardueraren ezaugarriak azaldu nahi izan dira.

Hauxe da ikerlan mota honi EAEn ekiten zaion lehenengo aldia, ezaugarri jakin batzuk dituen eremu batean, hots, kultura-eremuan, duen garrantziarekin. Eremu horrek, ezaugarri gisa, estatistika-informazio urria du eta erkaketak egitea (sektoreen artean, beste lurralde-errealitate batzuekin) ahalbidetuko duen eta sektore horiek osatzen dituzten agente guztiek (publikoak eta pribatuak) erabakiak hartzea erraztuko duen informazioa biltzeko metodo estandar bat ezartzeko premia du.

Lehenengo edizioa denez gero, oraingo honetan, eragiketaren diseinua eta agenteen errolda gauzatzeko ahaleginak egin dira, batez ere. Ondorengo edizioetan datu-corpora eratuko da, eta sektoreen denbora-bilakaera aztertu ahal izango da hari esker.

Diseinu-faseak hartu duen garrantziak ekarri du parte-hartze fasea handitzea. Fase horretan, sektore bakoitza ordezkatzen duten elkarteei eskatu diegu beren ezagutzaren berri emateko eta iruzkinak nahiz proposamenak egiteko, galdesortzen diseinua egokitu eta agenteen erroldak garbitzarren.

Bildutako informazioaren erreferentzia-urtea 2007a da. Datu hori oso kontuan izan behar da data horretatik gaur egun arte aldaketa asko gertatu direlako, neurri batean ziklo-aldaketa adierazten duten garrantzi handiko eraldaketak, hain zuzen ere. Ekonomia-krisi globalaren testuinguruaz gain, arteak (arte eszenikoak, musika, ikusizko arteak) teknologia berrien inpaktuarekiko sentikorrak dira maila guztietan (enpresa-egitura mota, jarduera mota eta bolumena, banaketa eta abar). Ildo horretatik, litekeena da 2007ko datuek ezin islatu izatea gaur egungo berezkoak diren errealitate berriak.

Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena	Arteei buruzko Estatistika – Arte eszenikoen programatzaileak
Eragiketaren estatusa	Eustatek ofizial egina
Aldizkakotasuna	Bi urtean behin
Eragiketa mota	Erroldaren eragiketa
Informazioa biltzeko aldia	2008ko irailetik 2009ko maiatzera
Informazioaren erreferentzia-urtea	2007
Landa-lana egiteko ardura duen enpresa	Ikertalde Grupo Consultor
Konsultatutako elkarteak	Sarea

Kontzeptuzko definizioak

Arte eszenikoak programatzen dituzten agenteei buruzko azterlanak duen irismena mugatzeko, hainbat oinarritzko irizpide eta definizio ezarri dira.

Arte eszenikoen bi programatzaile mota bereizi dira: antzokiak eta jaialdiak.

Antzokia. Edozein motatako eszena-produkzioaren erakusketa egiteko behar diren baldintza teknikoak dituen azpiegitura iraunkorra da.

Errolda egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Honako antzoki hauek soilik hartu dira kontuan: batez ere eszena-ikuskizunak —gehienak profesionalak— programatzeko erabiltzen diren antzokiak. Programazio amateurraren zati osagarri bat dagoela aitortu den kasuetan, programazio hori kontuan izan da jarduera zenbatzerakoan.
- Berezko gunea duten programatzaileak soilik hartu dira kontuan; hortaz, beren programazioa garatzeko guneak alokatzen dituztenak —normalean dimentsio handikoak, hala nola kirol-jauregiak, batzar-zentroak eta abar— ez dira aintzat hartu.
- Urtean zehar gutxienez 3 emanaldi profesional programatu dituzten antzokiak soilik hartu dira kontuan.
- Antzokien jardueraren barruan, arte eszenikoen eta musikaren alorreko programazioa soilik hartu da kontuan; aitzitik, honako hauek kanpo geratu dira: zinemaren alorreko programazioa, hitzaldien, bileren eta hainbat ekitaldiren programazioa.

Jaialdia. Programazio eszeniko gisa definitzen da, normalean genero jakin baten inguruan egituratuta dagoena, iraupen mugatua duena, eta kasu batzuetan hainbat gunetan erakusten dena (antzokiak, kultura-zentroak, kaleak eta plazak, elizak eta abar).

Errolda egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Soilik arte eszenikoen jaialdiak hartu dira kontuan, nahiz eta horietako batzuek kontzerturen bat edo musika-jardueraren bat erantsi dezaketen osagarri gisa. Hortaz, soilik musikaren alorreko programazioa egiten duten jaialdiak ez dira kontuan hartu.
- Jaialdiek hainbat lekutan jarri ohi dute beren programazioaren berri, eta, horregatik, litekeena da antzoki batean gauzatzen diren ikuskizun batzuk bi aldiz zenbatzea. Kasu horretan, egon litekeen bikoiztasun hori zuzentzeko arreta handia jarri da.

Errolda eta erantzun-maila

Azken erroldan 114 agente sartu dira (5 antzerki-areto handi, 35 ertain, 36 txiki eta 38 jaialdi). % 92ko erantzun-maila lortu da, eta balioetsitako erantzunak % 8 izan dira.


1. AGENTEEN EZAUGARRIAK

EAEko arte eszenikoen programatzaileen artean errealitate desberdinak daude, eta eskaintzari dagokionez oreka-maila altua dago. Azpiegitura asko daude agente programatzaile nagusi gisa jarduten dutenak, baina aberastasuna lurralde osoan banatuta dagoen dimentsio txikiagoko areto eta jaialdi sare garrantzitsu batekin ere adierazten da. Oreka hori ibilbide handiko programatzaileekin eta duela gutxi sortutako beste batzuekin indartzen da. Agente programatzaileei buruz egindako azterketak aretoak bereizten ditu, hots, azpiegitura finkoa duten programatzaileak eta jaialdien ohiko programazioa¹. Batez ere programatzaile publikoak dira; titulartasuna dela medio horietakoren bat irabazi-asmorik gabeko elkartetzat har daitekeen arren, partaidetza publikoa garrantzizkoa da kasu guztietan.

1.1. PROGRAMATZAILEEN MAPA

Arte eszenikoen programazioa antzerki-aretoetatik eta jaialdietatik egiten da batez ere EAEn. Guztira, 114 agente programatzaile daude: 52 Bizkaian, 45 Gipuzkoan eta 17 Araban. Programatzaileen banaketa, eta, hortaz, jardueraren eta azpiegituren banaketa hiru lurralde historikoetako garrantzi demografikoaren arabera da². Hortaz, Araba biztanle gutxien duen lurraldea izateaz gain agente programatzaile gutxien duen lurraldea da; aitzitik, Gipuzkoan eta Bizkaian —biztanle gehien eta hiri-aglomerazio handienak dituzten lurraldeak— programatzaileen % 39,5 eta % 45,6 daude, hurrenez hurren.

1. irudia. Programatzaileak, lurraldearen arabera. 2007




Programatzaileei buruz EAEn egiten den banaketak (aretoak eta jaialdiak) lurralde horietako biztanleen banaketa proportzionalari jarraitzen diola esan daitekeen arren, programatzaile tipologia kontuan hartuta, horien artean dauden alde batzuk aipatu behar dira. EAEn 5 aretoen programatzaile handi daude, 35 ertain, 36 txiki eta 38 jaialdi. Jaialdiek antzeko garrantzia dute

¹ Bi programatzaile-kategoria handi bereizten dira: aretoetako programatzaileak eta jaialdietako programatzaileak. Lehenengo aretoen artean, lortutako diru-sarreraren arabera, honako hauek bereizten dira: areto handiek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzte; ertainek 100.000 eurotik milioi bat eurora bitarte; eta txikiak 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte.

² EUSTATEN datuen arabera, 2007/12/31n honako hau da EAEko biztanleriaren banaketa: % 53,3 Bizkaian, % 32,3 Gipuzkoan eta % 14,4 Araban.

lurralde historiko bakoitzean, aretoen programatzaile txikiek, ordea, Gipuzkoan garrantzi handiagoa dute gainerako lurraldeetan baino. Hala eta guztiz ere, Bizkaian nahiz Gipuzkoan, areto-programatzaile handien garrantzia antzekoa da, eta termino absolutuetan esan daiteke lurralde bakoitzeko bi programatzaile handi daudela.


2. irudia. Programatzaileak, tipologiaren eta lurraldearen arabera. 2007



1.2. IBILBIDEA


EAEko agente programatzaileen ibilbideen artean nolabaiteko oreka dago. Azken hamarkadan (1998.-2007. urtea) programatzaileen herenak ekin dio bere jarduerari (% 34,2), % 43k, aldiz, aurreko hamarkadan ekin zion (198.-1997. urtea), eta % 22,8k hogei urtetik gorako antzintasuna du. Egia esan, datu horiek erakusten dute tradizio handiko antzokiak eta jaialdiak finkatzeaz gain, proiektu berriak sortzen jarraitzen dela, eta programazio berrietan gauzatzen direla proiektu horiek.

3. irudia. Programatzaileak, jarduerari hasiera eman zitzaioneko urtearen arabera. 2007



Programatzaile tipologiari dagokionez, dimentsio handieneko programatzaileak antzinasun handiena dutenak dira. Aitzitik, aretoetako programatzaile ertain eta txiki gehienek laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera programatzen dute, nahiz eta bi kasuetan azken ekimenak agertu izana esanguratsua izan. Bestalde, jaialdiak sortzeari dagokionez, kopurua iraunkorra izan da; izan ere, jaialdi asko 1987a baino lehenagokoak dira, eta beste jaialdi berri asko 1997. urtetik gaur egunera bitarteko aldiari jarri dira abian.

4. irudia. Programatzaileak, jarduerari hasiera eman zitzaieneko urtearen eta tipologiaren arabera. 2007




1.3. EDUKIERA

Aretoen programatzaileen artean, edukiera txiki eta ertainetako eskaintzak nagusitzen dira batez ere; % 68,5ek 400 eserleku baino gutxiagorentzako edukiera du. Aretoen programatzaileen % 9,2k soilik dauka 700 besaulkitik gorako edukiera. Bizkaian eta Gipuzkoan, aretoen batez bestekoaren banaketa antzekoa da; Araban, ordea, gunen handien eskaintza txikia izateaz gain, esan behar da ez dagoela eszena-programatzaileek kudeatutako 400 eserlekutik 700 eserlekura bitarteko gunerik.

Jaialdiak aretoekin alderatzen baditugu esan behar dugu jaialdiek edukiera handiagoak eskaintzen dituztela; jaialdien programatzaileen % 73,7k 400 eserlekutik gorako edukierak baitituzte.

5. irudia. Programatzaileak, aretoetako edukieraren, eta lurraldearen eta jaialdien arabera. 2007



2. DIMENTSION EKONOMIKOA

2.1. DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

Arte eszenikoen programatzaileen diru-sarreraren eta gastuen guztizko bolumena 45 milioi eurokoa da. Titulartasunari eta programatzaile horien zati handi bati egiten zaizkion ekarpen publikoei esker ulertzen dira ia guztiz orekatuak diren aurrekontuetan ikusten diren alde txikiak.

Areto- eta jaialdi-programatzaile handiek dituzte diru-sarrera handienak. Aretoetako programatzaileek 20 milioi euro inguruko diru-sarrerak dituzte; horrek esan nahi du diru-sarreraren batez bestekoa, programa bakoitzeko, ia 4 milioi eurokoa dela. Izan ere, bost handien artean areto-programatzaileen guztizko aurrekontuaren ira % 70 biltzen dute.

Jaialdien kasuan, diru-sarreraren guztizko kopurua 16,6 milioi da, jaialdi bakoitzeko diru-sarreraren bestekoa 436.749 euro izanik.

6. irudia. Programatzaileen diru-sarrerak eta gastuak, tipologiaren arabera (eurotan). 2007


	Handiak	Ertainak	Txikiak	Aretoak, guztira	Jaialdiak	Programatzaileak guztira
Diru-sarrerak	19.975.183	7.114.543	1.563.802	28.653.528	16.596.485	45.250.014
Gastuak	19.929.070	6.956.579	1.712.654	28.598.303	16.165.766	44.764.069

Diru-sarrerei dagokienez, aipatu behar da diru-sarreraren ia % 60 ekarpen publikotik eratorria dela areto-programatzaileen kasuan. Programatzaile txikiek eta ertainek dute mendetasun publiko handiena, haien finantziazioaren % 80,1 eta % 76,5 baita mendetasun hori. Programatzaile handiek lortzen dute diru-sarrera kopuru handiena bildutako diru-kopuruaren arabera, nahiz eta programatzaile horiek mendetasun publiko handia duten.

Jaialdien kasuan, finantziazio publikoa ez da jaialdi horien diru-sarreraren erdira iristen; aitzitik, aretoen kasuan ez bezala, diru-sarreraren bigarren iturri handiena ez dira bildutako diru-kopuruaren araberrako diru-sarrerak, babesak baizik, eta horrek egiaztatzen digu ekitaldi mota horretako baliabide berezkoa eta berezia dela. Diru-sarreraren guztizko bolumenean bildutako diru-kopuruak garrantzi txikia izatea uler daiteke, alde batetik, hainbat generok, hala nola familia-antzerkiak eta kale-antzerkiak garrantzi handia dutelako jaialdietako programazioan, eta gonbidapenek garrantzi handiagoa dutelako programatzaile mota honen


diru-sarrerak zenbatzerakoan. Hortaz, autofinantziazio-maila handiena duten programatzaileak jaialdiak dira, horiek bakarrik gaintzen baitute diru-laguntzetatik eratortzen ez diren diru-sarreraren % 50a. Eta areto-programatzaileek autofinantziazio-maila handiagoa dute beren dimentsioa handitzen den neurrian.

7. irudia. Programatzaileen diru-sarrerak, diru-sarreraren kontzeptuaren eta tipologiaen arabera. 2007



Areto-programatzaileen gastuen artean, jardueratik zuzenean eratortzen direnek garrantzi handiagoa dute (guztizkoaren % 60,3); gastu hori, gainera, programatzen diren ikuskizunen katxearen ordainketak eragiten du. Gainerako gastuak honela banatzen dira: langileak (% 27,2) eta beste mota bateko gastuak (% 12,5). Jarduerak eragiten duen gastuaren eta langileek eragiten dutenaren garrantzia desberdina izateak bereizten ditu programatzaileak. Jaialdiek aurrekontuaren proportzio gehiago xahutzen dute jardueran (beren gastuen % 70 baino gehiago), eta plantillako langileen eta plantillakoak ez diren langileen arteko banaketak erakusten digu jaialdietan behin-behinekotasuna nagusitzen dela batez ere.


8. irudia. Programatzaileen gastuak, gastuaren kontzeptuaren eta tipologiaen arabera. 2007



2.2. ENPLEGUA

Arte eszenikoen EAeko programatzaileek 236 lanpostu sortzen dituzte; kalkulu hori lanaldi osoko enplegu egonkorraren batez bestekoa kontuan hartuta egiten da, eta soilik plantillako langileak kontuan hartuta, azpikontrataturako langileak kanpo utzita. Programatzaile gutxi batzuek langile kopuru handia daukate; bost areto-programatzaileen artean (guztizkoaren % 4,4) lanpostuen % 40 biltzen dituzte. Beste muturrean aretoen programatzaile txikiak daude; izan ere, horiek nahiz eta guztizkoaren % 30 baino gehiago izan, langileen % 9,7ri ematen diote lana. Bestalde, jaialdiek langileen % 24,2ri ematen diote lana.

9. irudia. Programatzaileek sortzen duten enplegua, tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007



Enpleguaren batez bestekoari buruzko datuek indartu egiten dute EAeko aretoen programatzaile handiek lanpostuak sortzeari dagokionez ematen duten biltze-irudia. Horrela, egoera honako hau da: programatzaile handiek 19 laguni ematen diete lana, batez beste, eta areto txikien gaitasunari dagokionez, aldiz, urte batean ez dute lanpostu finko bakar bat ere sortzen, batez beste.

Bestalde, jaialdiek 57 laguni ematen diete lana, lanaldi osoko 1,5 langileri, batez beste; nolahi ere, datu horiek urte batekoak direnez gero, zehaztu egin behar da sortutako enpleguaren irakurketa. Beren ezaugarriak direla medio, jaialdiek enplegu ugari sortzen dituzte jaialdiek prestatzen hasten direnean eta jaialdiek egiten direnean, eta, ondoren, egitura finko askoz ere txikiagoari euts diezaioke.


10. irudia. Arte eszenikoen programatzaileen enplegua (lanaldi osoko langileak, batez beste) eta enpleguaren batez bestekoa, tipologiaren arabera. 2007

	Handiak	Ertainak	Txikiak	Aretoak, guztira	Jaialdiak	Programatzaileak guztira
Langileak (lanaldi osokoak, batez beste)	95	61	23	179	57	236
Batez bestekoa	19,0	1,7	0,6	2,4	1,5	2,1

Kudeaketako langileak kontratazio globalaren ia % 43 dira, eta teknikariak areto-programatzaileen laurdena baino gehiago (% 28,4). Langileen dedikazioen artean aldeak daude, programatzaile tipologiaren arabera. Programatzaile handien kasuan, teknikarien eta kudeaketako langileen garrantzia oso antzekoa da: % 36 inguru. Aitzitik, areto ertainetan eta txikietan kudeaketako langile kopurua handiagoa da. Argi dago aldeak produkzio teknikitik eta aretoaren mantentze-lanetatik eta programatzen den ikuskizun motatik eratortzen diren premiek argitzen dituztela.


Jaialdiei dagokienez, horko langileen erdiak baino gehiago kudeaketako langileak dira, eta % 22,1 artistak. Teknikarien eta zerbitzuetako langileen garrantzia aretoen programatzaileen garrantzia baino txikiagoa da: % 15,2 eta % 10,7, hurrenez hurren.

11. irudia. Arte eszenikoen programatzaileek sortzen duten enplegua, dedikazioaren eta programatzaile tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007



Agente programatzaileen artean nagusitzen den kontratazio mota langile finkoen kontratazioa da, bai aretoen programatzaileen kasuan, bai jaialdien programatzaileen kasuan; lehenak % 77,8 dira, eta bigarrenak % 72,2. Tipologiaren arabera, programatzaileen artean alde batzuk dauden arren, behin-behineko langileen eta langile finkoen arteko proportzioa azken horien aldekoa da, argi eta garbi. Argi dago jarduera motaren arabera jaialdien programatzaileei dagokienez, behin-behineko langileen ehunekoa handiagoa dela: % 27,8.

12. irudia. Arte eszenikoen programatzaileek sortzen duten enplegua, kontratazio motaren eta programatzaile tipologiaren arabera (lanaldi osoko langileak, batez beste). 2007



3. JARDUERA

3.1. JARDUERAREN BOLUMENA


2007an, 1.045 ikuskizun programatu dira. Ikuskizun horien % 81,1 helduentzako ikuskizunak dira, eta gainerako % 18,9a haurrentzat. Guztira, 3.318 emanaldi gauzatu dira. Batez beste, 3,2 emanaldi gauzatu dira ikuskizun bakoitzeko, eta haurrentzako antzerkiaren produkzioen ustiapena helduentzako antzerkien produkzioena baino ia puntu bat handiagoa da. Hortaz, haurrentzako ikuskizunek ia 4 antzeppen gauzatzen dituzte batez beste; aitzitik, helduentzako antzerkiari dagokionez, 3 antzeppen gauzatzen dira ikuskizun bakoitzeko. Datu horiek erakusten dute antzerki-erakusketak oso desberdinak direla; izan ere, mota guztietako eszenatokietan eta gunetan ikuskizun bizi asko egiten dira.

13. irudia. Programatutako eta antzeztutako ikuskizunak, ikusle motaren arabera. 2007

Ikusle mota	Programatutako ikuskizunak		Antzeppenak		Antzeppenak/ Ikuskizuna
	Maizt.	%	Maizt.	%	
Helduentzako antzerkia	847	%81,1	2.551	%76,9	3,0
Haurrentzako antzerkia	198	%18,9	767	%23,1	3,9
GUZTIRA	1.045	%100,0	3.318	%100,0	3,2

Lurraldearen arabera, Bizkaian egin dira antzeppen gehienak (erdia baino gehiago: % 55,6), betiere lurralde horretan biltzen den programatzaile kopuru handienarekin bat etorritik (aretoak nahiz jaialdiak). Gipuzkoan antzeppen % 34,1 egin dira, eta Araban % 10,3.


14. irudia. Antzeppenak, lurraldearen arabera. 2007



Programatzaile ertainek (horiek batez ere aretoetan gauzatzen dute beren jarduera) eta jaialdiek programatu dute antzeppen kopuru handiena (% 32,1 eta % 32, hurrenez hurren). Kontuan hartzen badugu aretoak gune iraunkorrak direla eta urte osoan programazioak egiteko aukera

ematen dutela, esan behar da jaialdiek asko laguntzen dutela antzerki-emanaldien guztizko kopurua igotzen.

15. irudia. Antzezpeneak, programatzaile tipologiaren arabera. 2007




3.2. ARETOETAKO JARDUERAREN EZAUGARRIAK

EAEko aretoetan programatutako antzezpeneen % 61,7 Euskadiko konpainiei dagokie. Estatuko gainerako erkidegoetako konpainiek programazioaren % 29,3 gauzatu dute, eta atzerriko konpainiek nahiz nazio anitzekoek garrantzi txikiagoa dute programazio osoan, guztizko antzezpeneen % 10 izatera ez baitira iristen. Nolanahi ere, alde esanguratsuak daude ikuskizunak zer ikusle motari bideratuta dauden kontuan hartzen badugu.


Euskadiko konpainiek egindako ikuskizunak nagusitzen dira haurrentzako antzerkian; izan ere, 10 antzezpeneetik 8 EAEko konpainiek gauzatzen dituzte. Aitzitik, haurrentzako antzerkiari dagokionez, Euskadiko konpainiek egiten dituzten antzezpeneen ehunekoak % 52,7ra jaitsi da, baina Euskadiko gainerako erkidegoetako konpainien presentzia igo egin da.

16. irudia. Aretoetan programatutako antzezpeneak, konpainiaren jatorriaren eta ikusle motaren arabera. 2007



Programatzaile tipologiari esker egiazta daiteke kontratatzailearen dimentsio ekonomikoa funtsezko alderdia dela Estatuko gainerako erkidegoetako ikuskizunak eta atzerriko ikuskizunak erakarri ahal izateko. Ikuskizun horiek programatzaile handien antzezenen erdia baino gehiago dira. Nolanahi ere, programatzaile ertainen eta txikien artean EAEko konpainien antzezenak nagusi izateak erakusten du lurralde honetan sortutako proposamen eszenikoak nagusitzen diren zirkuitua dela.

17. irudia. Aretoetan programatutako antzezenak, konpainiaren jatorriaren eta programatzaile tipologiaren arabera. 2007



EAEko aretoek gehien antzezenen duten generoa testu-antzerkia da, beste edozein generotatik urrun, guztizko antzezenen % 58,7ko garrantzia baitu. Gainerako generoen artean, dantzak eta animazio-antzerkiak dute presentzia handiena.

Programazio tipologiak erabakitzen du, neurri handi batean, programatutako generoa. Programatzaile handiek testu-antzerkiaren aldeko apustua egiten dute (antzeztutako ikuskizunen % 71,7), eta gainerako generoek oso presentzia txikia dute. Horien artean, dantzak, musika-antzerkiak eta musikak dute, ordena horren arabera, nolabaiteko indarra programatzaile handiek eskaintako antzezenetan.

Testu-antzerkiak gain (hori da programatzaile guztien kasuan nagusitzen dena), programatzaile ertainek dantzaren eta objektu-antzerkiaren aldeko apustua egiten dute; programatzaile txikiek, aldiz, animazio-antzerkiaren, *performanceen* eta keinu bidezko antzerkiaren aldekoa egiten dute (beste batzuk izeneko kategoriaren barnean sartuta daude horiek).

18. irudia. Aretoetan programatutako emanaldiak, ikuskizunaren generoaren eta programatzailearen tipologiaren arabera. 2007

Ikuskizunaren generoa	Handiak	Ertainak	Txikiak	GUZTIRA
Testu-antzerkia	%71,7	%52,8	%53,3	%58,7
Dantza	%11,2	%10,0	%9,3	%10,2
Animazio-antzerkia	%1,0	%8,0	%9,5	%6,2
Objektu-antzerkia	%0,9	%8,2	%4,4	%5,1
Musika-antzerkia	%7,0	%4,3	%2,4	%4,7
Musika	%6,2	%3,7	%0,8	%3,8
Zirkoa eta magia	%0,0	%4,0	%7,3	%3,5
Antzerki lirikoa	%1,9	%1,8	%1,0	%1,6
Kale-antzerkia	%0,0	%1,2	%2,4	%1,1
Beste batzuk*	%0,1	%6,0	%9,5	%5,0
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

(*) «Beste batzuk» kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: keinu bidezko antzerkia, barietate-antzerkia, performanceak, irakurketa dramatizatuak, eta sailkatu gabeko bestelako arte eszenikoak.

Euskadiko antzerki-erakusketaren ezaugarri berezia da ikuskizunek gune berean oso denbora gutxi irauten dutela (denboraldia egin arte). Helduentzako antzerkiari eta haurrentzako antzerkiari dagokionez, leku berean ez dira, batez beste, bi antzezpen egiten ikuskizun bakoitzeko (1,4); horrek esan nahi du ikuskizunaren errotazioa oso handia dela.

Nolanahi ere, hainbat alde daude ikuskizunaren generoaren arabera. Gainerako generoekin alderatuta, musika-antzerkia da areto berean antzezpen gehien programatzea lortzen duena. Garrantzi handiko produkzioak eszenaratzeak dakarren inbertsioa kontuan hartuta (batez ere helduentzako antzerkiaren kasuan), ulertzen da areto berean 2,6 antzezpen egitea, batez beste. Beste muturrean, eszenatoki berean gutxien errepikatzen den generoa musika da, gune bakoitzeko kontzertu bat bakarrik egiten baita, batez beste.

19. irudia. Ikuskizun berak gune berean irauten duen denboraren batez bestekoa, ikuskizunaren generoaren eta ikusle motaren arabera. 2007


Ikuskizunaren generoa	Helduentzako antzerkia	Haurrentzako antzerkia	GUZTIRA
Musika-antzerkia	2,6	1,3	1,9
Testu-antzerkia	1,5	1,8	1,6
Dantza	1,4	1,6	1,4
Animazio-antzerkia	1,0	1,4	1,4
Antzerki lirikoa	1,2	1,0	1,2
Objektu-antzerkia	1,1	1,1	1,1
Kale-antzerkia	1,0	1,5	1,1
Zirkoa eta magia	1,1	1,0	1,1
Musika	1,0	0,0	1,0
Beste batzuk*	1,3	1,0	1,3
GUZTIRA	1,4	1,4	1,4

(*) «Beste batzuk» kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: keinu bidezko antzerkia, barietate-antzerkia, performanceak, irakurketa dramatizatuak, eta sailkatu gabeko bestelako arte eszenikoak.

Gaztelania da EAEko aretoetako eskaintzan presentzia handiena duen hizkuntza (antzezpenen % 45,4 hizkuntza horretan egin dira); euskara, ordea, antzezpenen % 35,2tan erabili da. Nolanahi ere, gogoratu behar da funtsezko aldaketak daudela ikuskizunaren xede diren ikusleen arabera. Haurrentzako antzerkian euskara nagusitzen da, hizkuntza horretan egindako antzezpenak % 80 baino gehiago baitira; aitzitik, helduentzako antzerkiaren kasuan, euskararen presentzia antzezpenen % 18,4raino jaitsi da.


Gorago ikusi denez, helduentzako antzerkiaren kasuan, antzezpenen erdia baino gehiago EAEko konpainiek egin dituzte (% 52,7); euskarazko antzezpen kopurua, ordea, % 18,4 jaitsi da. Horrek esan nahi du Euskadiko konpainia askok gaztelaniazko ikuskizunak egiten dituela ikusle helduentzat.

20. irudia. Aretoetan programatutako emanaldiak, ikuskizunaren hizkuntzaren eta ikusle motaren arabera. 2007



Programatzaile txikien eta ertainen eskaintzan EAEko konpainien presentzia handiagoa izateak argitzen du euskarak garrantzi handiagoa izatea haien programazioetan. Esan behar da programatzaile txikien kasuan, euskara antzezpenen ia % 80tan erabiltzen dela, eta presentzia handia duela haurrentzako antzerkian. Bestalde, programatzaile handiek (Estatuko gainerako erkidegoetako konpainiak eta atzerriko konpainiak erakartzeko gaitasun handiagoa dute) gaztelaniazko eta beste hizkuntza batzuetako ikuskizun gehiago aurkezten dituzte, hortaz.

21. irudia. Aretoetako emanaldiak, hizkuntzaren eta programatzaile motaren arabera. 2007




3.3. JAIALDIETAKO JARDUERAREN EZAUGARRIAK

Jaialdietako ikuskizunen programazioari dagokionez, eskaintza oso desberdina da eta konpainiaren jatorriarekin lotuta dago. Programatutako antzezenak kontuan hartzen badira, EAeko konpainien presentzia-maila eta Estatuko gainerako erkidegoetako konpainiena antzekoa da. Oreka hori helduentzako antzerkiaren kasuan gertatzen da batez ere (Estatuko gainerako erkidegoetako konpainien % 30,8 eta EAeko konpainien % 26); haurrentzako antzerkiaren kasuan, aldiz, Euskadiko konpainiek presentzia handiagoa dute (% 44).

Aretoen programatzaileekin gertatzen denaz bestela, jaialdiek atzerriko edo nazio anitzetako konpainien eskaintzaren aldeko apustua egiten dute, eta bien artean antzezenen % 40,9 egin dituzte.

22. irudia. Jaialdietan programatutako antzezenak, konpainiaren jatorriaren eta ikusle motaren arabera. 2007



Jaialdietan programatutako generoei dagokienez, nabarmentzekoa da objektu-antzerkiak duen garrantzia, testu-antzerkiak duena baino handiagoa (genero hori aretoen programazioan nagusitzen zen, ordea). Azterketa zehatzagoa egiten bada, ikus daiteke portaera orokorrari dagokionez dauden alde esanguratsuak helduentzako antzerkian ikusten direla. Kasu honetan, testu-antzerkitik hurbil objektu-testuak daude, eta beste batzuk izeneko kategoriaren barruan, *performanceak*. Datu horiek erakusten dute jaialdietan genero-aukera dagoela, aretoetako eskaintza, ordea, askoz ere homogeneoagoa da.


23. irudia. Jaialdietan programatutako emanaldiak, ikuskizunaren generoaren eta ikusle motaren arabera. 2007

Ikuskizunaren generoa	Helduentzako antzerkia	Haurrentzako antzerkia	GUZTIRA
Objektu-antzerkia	%16,0	%51,3	%21,0
Testu-antzerkia	%18,3	%13,3	%17,6
Dantza	%14,3	%4,7	%12,9
Kale-antzerkia	%11,7	%4,7	%10,7
Zirkoa eta magia	%7,7	%2,7	%7,0
Animazio-antzerkia	%5,0	%6,7	%5,3
Antzerki lirikoa	%3,3	%12,0	%4,5
Musika-antzerkia	%1,9	%4,0	%2,2
Musika	%1,2	%0,0	%1,0
Beste batzuk*	%20,6	%0,7	%17,8
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0

(*) «Beste batzuk» kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: keinu bidezko antzerkia, barietate-antzerkia, performanceak, irakurketa dramatizatuak, eta sailkatu gabeko bestelako arte eszenikoak.

Jaialdietan nagusitzen den hizkuntza gaztelania da: emanaldien %47,6tan hizkuntza hori erabiltzen da. Haurrentzako antzerkiaren eskaintzan ere gaztelaniaren presentzia euskararena baino handiagoa da (hori ez zen gertatzen aretoen programazioaren kasuan). Era berean, esan behar da ikuskizunen ia laurden bat hitzik gabea dela, batez ere honako genero hauekin lotuta dagoena: objektu-antzerkiarekin edo dantzarekin (jaialdietan presentzia handia duten generoak, bestalde).

24. irudia. Aretoetan programatutako emanaldiak, ikuskizunaren hizkuntzaren eta ikusle motaren arabera. 2007



4. BERTARATUAK

4.1. BERTARATU KOPURUA ETA BILDUTAKO DIRU-KOPURUA

EAEn programatutako arte eszenikoen ikuskizunetara 653.982 lagun bertaratu dira; horien artetik, % 87,1ek sarrera ordaindu du, eta % 12,9 gonbidatuak izan dira¹. Bertaratu guztien artetik, % 76 aretoetako ikusleak dira, eta % 24 jaialdietakoak. Gonbidapena kontuan hartzen bada, bertaratu kopurua handiagoa da jaialdietan (% 24,2), gertaera hori babesen eta laguntzen bitartez konpentsatutako merkataritza-estrategia baten ondorio da.

25. irudia. Bertaratuak, sarrera motaren eta programatzaile tipologiaren arabera. 2007

	Saldutako sarrera kopurua	Gonbidatutako sarrera kopurua	GUZTIRA
Handiak	258.962	24.989	283.951
Ertainak	151.624	19.104	170.728
Txikiak	41.039	2.948	43.987
Aretoak, guztira			
Abs.	451.625	47.041	498.666
%	%90,6	%9,4	%100,0
Jaialdiak			
Abs.	117.692	37.624	155.316
%	%75,8	%24,2	%100,0
Programatzaileak, guztira			
Abs.	569.317	84.665	653.982
%	%87,1	%12,9	%100,0

Helduentzako antzerkiak du bertaratuen gehiengoa (% 80,4); nolahi ere, saldutako sarrera kopurua eta gonbidapen kopurua antzekoa da helduentzako antzerkian eta haurrentzako antzerkian, baina zertxobait handiagoa da haurrentzako antzerkian saldutako sarrera kopurua.

26. irudia. Bertaratuak, sarrera motaren eta ikusle motaren arabera. 2007

	Helduentzako antzerkia		Haurrentzako antzerkia		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Saldutako sarrera kopurua	455.697	%86,7	113.620	%88,7	569.317	%87,1
Gonbidatutako sarrera kopurua	70.249	%13,3	14.416	%11,3	84.665	%12,9
Bertaratuak, GUZTIRA	525.946	%100,0	128.036	%100,0	653.982	%100,0

Programatzaileek lortutako diru-kopurua ia 7,5 milioi eurokoa da, ia guztia helduentzako antzerkiaren inguruko jarduerari esker (guztizkoaren % 93,5). Haurrentzako antzerkiak

¹ Sarrerak kontrolatu diren emanaldiak soilik zenbatu dira.

(bertaratuen % 19,6) bildutako diru-kopuru guztiaren % 6,5 soilik ematen du. Bildutako diru-kopuruari dagokionez, haurrentzako antzerkiak duen eragin txikia sarreraren batez besteko prezioan ikusten da: helduentzako antzerkiaren sarrera 15,38 eurotik gorakoa da, haurrentzako antzerkiaren kasuan, aldiz, zenbatekoa askoz ere txikiagoa da: 4,29 euro.

Okupazio-maila eta sarreraren prezioa batera aztertzen badira, ikusten da azken aldagai hori ez dela erabakigarria lehen aldagaiarentzat, antza. Hau da, nahiz eta sarreraren batez besteko prezioa handiagoa den helduentzako antzerkian, okupazio-mailak ia berdinak dira haurrentzako antzerkian eta helduentzako antzerkian; bi kasuetan % 55 ingurukoak baitira.

27. irudia. Bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa, ikusle motren arabera. 2007¹

	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa (€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Helduentzako antzerkia	525.946	%80,4	7.008.399	%93,5	15,38	%55,8
Haurrentzako antzerkia	128.036	%19,6	487.205	%6,5	4,29	%55,3
GUZTIRA	653.982	%100,0	7.495.604	%100,0	13,17	%55,7

Soilik helduentzako antzerkia kontuan hartzen bada², ikusten da alde garbiak daudela bertaratu kopurua eta bildutako diru-kopurua bereizterakoan. Programatzaile handiek (bertaratuen % 50,5 dituzte) bildutako diru-kopuru guztiaren % 74,1 lortu dute. Aitzitik, gainerako programatzaileei dagokienez, aldatu egin da bertaratuen eta bildutako diru-kopuruaren arteko harremana. Esate baterako, programatzaile ertainek (bertaratuen % 21,6) bildutako diru-kopuruaren % 12,4 lortu dute.

Neurri handi batean, alde horiek ulertzen dira programatzaile handiek produkzio handiko eskaintza egiteko gaitasuna dutelako eta sarrera horrengatik ikusleak ordaintzeko prest dauden prezioarengatik. Izan ere, programatzaile handiek (21,49 euroko batez besteko prezioa eskaintza egin dute) okupazio-maila handia lortzen dute (% 63,5) baldin eta gainerako programatzaileekin alderatzen badugu. Horrenbestez, esan daiteke logika desberdinak dituzten bi merkatu daudela: programatzaile txikiek eta ertainek ez ezik jaialdiek ere sarreraren prezioa egokitu egin behar dute eskaintako edukieraren erdia okupatzeko, baina programatzaile handiek lortzen dute produkzio horri irauraztea sarreraren prezioa kontuan izan gabe.

Bestalde, jaialdiek bertaratuen % 22 dituzte, eta bildutako diru-kopuruaren % 11 soilik. Diru-sarreraren azterketan ikusienez, alde hori beren aurrekontu-orekan babesleek duten garrantziak argi dezake.

¹ Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulatu dago; aitzitik, bertaratuen guztizkoa kalkulatzeko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

² Helduentzako antzerkian eta haurrentzako antzerkian bildutako diru-kopuruari dagokionez aldeak daudenez gero, bi antzerki motak bereizi egin behar dira azterketa egiterakoan.

28. irudia. Helduentzako antzerkita bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa, programatzaile tipologiaren arabera. 2007¹

Tipología	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Handiak	265.571	%50,5	5.190.892	%74,1	21,49	%63,5
Ertainak	113.375	%21,6	870.774	%12,4	8,87	%45,4
Txikiak	31.049	%5,9	177.071	%2,5	6,20	%48,3
Aretoak, guztira	409.995	%78,0	6.238.737	%89,0	36,56	%56,0
Jaialdiak	115.951	%22,0	769.662	%11,0	8,80	%55,0
GUZTIRA	525.946	%100,0	7.008.399	%100,0	15,38	%55,8

Bertaratu bakoitzeko ekarpen publikoa aztertzen bada, ikusi ahal izango da sektore publikoak zenbateraino laguntzen duen programazioei eusten. Emaitzak erakusten du Euskadiko sektore publikoak 40 euro inguru ematen dituela (39,6) antzokira bertaratuak lagun bakoitzeko, baina programazioaren arabera badira hainbat desberdintasun. Jaialdien kasuan, kostu hori 47,6 eurokoa da; aretoetan, ordea, alde handiak daude tipologiaren arabera: programatzaile handiek ekarpen publikoko 41,6 euro jasotzen dituzte bertaratu bakoitzeko, ertainek 31,9, eta txikiak 28,5.

29. irudia. Ekarpen publikoa, bertaratuen eta programatzailearen tipologiaren arabera. 2007²

Tipología	€
Handiak	41,6
Ertainak	31,9
Txikiak	28,5
Aretoak, guztira	37,1
Jaialdiak	47,6
GUZTIRA	39,6

4.2. ARETOETARA BERTARATZEN DIREN LAGUNEN KOPURUAREN ETA ARETOETAN GAUZATUTAKO JARDUERAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUAREN EZAUGARRIAK, ESKAINTZA MOTAREN ARABERA.

Aretoetako eskaintza mota bereizten duten aldagaien arabera, bertaratze-mailak, bildutako diru-kopuru mailak eta okupazio-mailak ez ezik sarreraren batez besteko prezioak ere erakusten du alde nabarmenak daudela. Helduentzako antzerkien portaera eta haurrentzako antzerkiarena

1 Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulaturik dago; aitzitik, bertaratuen guztizkoa kalkulatzeko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

2 Ekarpen hori programatzaileek lortzen duten ekarpen publikoaren diru-sarreraren guztizkoa oinarri hartuta kalkulatu da, eta guztizko hori ikuskizunetara bertaratu diren guztizkoarekin (sarrera-kontrola izan dutenak) zatitzen da.

desberdinak direnez gero, erabaki da, kasuren batean, helduentzako antzerkiaren errealitatea soilik kontuan hartzea.

Helduentzako antzerki-ikuskitzuna soilik kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu bertaratuena ia erdiak Estatuko gainerako erkidegoetako konpainien ikuskitzuna direla (% 49,4), eta EAEko konpainien ikuskitzuna bertaratuak, aldiz, % 35,9 direla. Estatuko gainerako erkidegoetako konpainiek dute, halaber, bildutako diru-kopuru handiena, guztizkoaren % 57,6 lortu baitute; aitzitik, Euskadiko konpainien ekarpena konpainia horien bertaratu kopuruari dagokionez daukaten garrantziaren azpitik dago (% 24,6) -batez besteko sarrera-prezioa gainerako prezioak baino zertxobait txikiagoa delako-.

Gogoratu behar da Estatuko gainerako erkidegoetako ikuskitzuna programatzailerik handiek programatzen dituztela batez ere, eta batez besteko sarrera-prezioak handiagoak direla. Dena den, konpainiaren jatorriaren arabera, batez besteko sarrera-prezio handiena duten ikuskitzuna atzerrikoak dira, prezioa 22 eurotik gorakoa baita (22,46). Okupazio kopuru handiena Estatuko gainerako erkidegoetako konpainien ikuskitzuna izan dute, eskuragarri dagoen edukiera okupatuaren % 60tik gorakoa izan baita okupazio hori. Horri kontrajarririk, EAEko konpainiek dute okupazio txikiena.

30. irudia. Aretotara bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa helduentzako antzerki-ikuskitzuna, konpainiaren jatorriaren arabera. 2007¹

Konpainiaren jatorria	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
EAE	147.272	%35,9	1.536.789	%24,6	12,01	%50,4
Estatuko gainerako erkidegoak	202.699	%49,4	3.594.421	%57,6	19,28	%60,5
Atzerria	44.089	%10,8	887.529	%14,2	22,46	%57,1
Nazio anitzekoa	15.935	%3,9	219.998	%3,5	15,44	%57,8
GUZTIRA	409.995	%100,0	6.238.737	%100,0	16,94	%56,0

Helduentzako antzerkia soilik hartzen badugu kontuan, testu-antzerkia da bertaratuak kopuru eta bildutako diru-kopuru handiena lortzen duen generoa, alde handiarekin. Nolanahi ere, ez da okupazioaren ehuneko hoberena lortzen duen generoa. Musika-antzerkia (genero hau lehenengo postuan dago) eta antzerki lirikoak dira okupazio-maila handienak lortzen dituzten generoak.

Izan ere, sarrera-prezio handienak jarri arren (musika-antzerkiak 31,19 euro batez beste, eta antzerki lirikoak 19,04), bi genero horiek daukate aretoetako okupazio handienak: % 74,4 musika-antzerkiaren kasuan, eta % 68,5 antzerki lirikoaren kasuan.

¹ Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskitzuna soilik kontuan hartuta kalkulatu dago; aitzitik, bertaratuena guztizko kalkulatzeko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

Halaber, nabarmentzekoa da dantza-ikuskizunek lortzen duten diru-kopurua (milioi bat euro baino gehiago) eta genero horren okupazioa antzerki lirikoaren okupaziotik hurbil dago (% 64,2).

31. irudia. Helduentzako antzerki-ikuskizunetan aretoetara bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa, ikuskizunaren generoaren arabera. 2007¹

Generoa	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Musika-antzerkia	34.164	%8,3	1.006.999	%16,1	31,19	%74,4
Antzerki lirikoa	9.707	%2,4	156.782	%2,5	19,04	%68,5
Dantza	62.774	%15,3	1.097.811	%17,6	19,32	%64,2
Objektu-antzerkia	3.114	%0,8	8.274	%0,1	2,91	%55,2
Testu-antzerkia	269.803	%65,8	3.685.863	%59,1	15,24	%53,5
Musika	18.566	%4,5	222.891	%3,6	14,36	%52,4
Animazio-antzerkia	1.238	%0,3	5.362	%0,1	4,95	%45,3
Zirkoa eta magia	4.519	%1,1	24.417	%0,4	5,88	%44,7
Kale-antzerkia	665	%0,2	3.209	%0,1	5,58	%31,2
Beste batzuk*	5.445	%1,3	27.128	%0,4	5,53	%38,4
GUZTIRA	409.995	%100,0	6.238.737	%100,0	16,94	%56,0

(*) «Beste batzuk» kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: keinu bidezko antzerkia, barietate-antzerkia, performanceak, irakurketa dramatizatuak, eta sailkatu gabeko bestelako arte eszenikoak.

Ikuskizunen guztizko eskaintza kontuan hartzen badugu, bertaratu eta bildutako diru-kopuru gehien lortzen duen eskaintza gaztelaniazkoa da, bi kasuetan guztizkoaren % 50 baino gehiago lortzen baitu. Gogoan izan behar da eskaintzaren bolumen orokorrean, gaztelaniaz emandako ikuskizunen garrantzia % 45,4koa dela. Euskarazko ikuskizunei dagokienez, 103.387 lagun bertaratu dira eta 435.515 euro lortu dituzte. Hizkuntza horretan egindako ikuskizunen batez besteko sarrera-prezioa gainerako sarrera-prezioen batez bestekoa baino askoz txikiagoa da, batez ere haurrentzako antzerki-ikuskizunak direlako, eta horien sarrera-prezioak helduentzako antzerkiaren prezioak baino askoz txikiagoak direlako.

32. irudia. Bertaratuak, bildutako diru-kopurua, okupazioa eta sarreraren batez besteko prezioa eta ikuskizunaren hizkuntzaren arabera. 2007²

Hizkuntza	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Euskara	103.387	%20,7	435.515	%6,7	4,7	%48,8
Gaztelania	280.130	%56,2	3.830.463	%58,8	15,1	%56,5
Hitzik gabea	91.234	%18,3	1.772.651	%27,2	21,3	%64,1
Beste batzuk	23.915	%4,8	504.823	%7,7	22,2	%41,8
GUZTIRA	498.666	%100,0	6.519.537	%100,0	14,4	%55,5

1 Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulatuta dago; aitzitik, bertaratuaren guztizkoa kalkulatzeko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

2 Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulatuta dago; aitzitik, bertaratuaren guztizkoa kalkulatzeko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

4.3. JAIALDIETARA BERTARATZEN DIREN LAGUNEN KOPURUAREN ETA JAIALDIETAN GAUZATUTAKO JARDUERAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUAREN EZAUGARRIAK, ESKAINTZA MOTAREN ARABERA.

Nazio anitzetako konpainiek dute bertaratu kopuru handiena, baita bildutako diru-kopuru handiena ere jaialdietako jarduerari dagokionez, nahiz eta konpainia horiek izan garrantzi txikiena eskaintza globalean. Horri esker ulertzen da, neurri handi batean, operaren eta lirikaren eskaintzan (hor biltzen da bertaratu kopuruaren eta bildutako diru-kopuruaren zati handi bat) konpainiak zergatik bereizi diren nazio anitzetako gisa. Estatuko gainerako erkidegoetako konpainiak bigarrenak dira bertaratu kopuruari eta bildutako diru-kopuruari dagokionez; nolahi ere, EAEko konpainietatik distantzia handira, horien presentzia eta garrantzia txikiagoa baita jaialdietan. Bestalde, atzerriko konpainiek (eskaintzaren % 23 inguru dira) bertaratuen % 13,6 eta bildutako diru-kopuruaren % 11,2 lortu dute.

33. irudia. Jaialdietara bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa, konpainiaren jatorriaren arabera. 2007

Konpainiaren jatorria	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Maizt.	%	Maizt.	%		
EAE	23.608	%15,2	101.801	%10,4	5,1	%51,6
Estatuko gainerako erkidegoak	42.956	%27,7	317.357	%32,5	8,7	%56,7
Atzerria	21.134	%13,6	109.589	%11,2	8,6	%54,6
Nazio anitzekoa	67.618	%43,5	447.322	%45,8	9,2	%58,0
GUZTIRA	155.316	%100,0	976.067	%100,0	8,3	%56,1

(*) Sarrera ordaindu duten bertaratuak kontuan hartuta kalkulatu da. Bertaratuen guztizkoan gonbidatutako bertaratuak ere kontuan hartu dira.

Antzerki lirikoa bertaratu kopuru eta bildutako diru-kopuru handiena duen generoa da jaialdietako programazioari dagokionez; izan ere, guztizko bertaratuen % 35,9 eta bildutako diru-kopuruaren % 38,7 dira. Gogoratu behar da, bestalde, genero hori ez dela jaialdietako programazioan eskaintza handiena duena; hortaz, ondorioztatzen da bertaratuei dagokienez daukan garrantzia genero hori eskaintzen den guneek edukiera handia izateagatik dela. Bigarrenik, bertaratu kopuruari eta bildutako diru-kopuruari dagokionez, inpaktu handia duen generoa testu-antzerkia da. Bestalde, dantza da hirugarren generoa bildutako diru-kopuruari dagokionez (% 13,9).

34. irudia. Jaialdietara bertaratuak, bildutako diru-kopurua, sarreraren batez besteko prezioa eta okupazioa, ikuskizunaren generoaren arabera. 2007¹

Generoa	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Kale-antzerkia	448	%0,3	1.575	%0,2	4,10	%80,3
Animazio-antzerkia	3.263	%2,1	17.702	%1,8	5,67	%79,0
Testu-antzerkia	41.941	%27,0	319.517	%32,7	8,60	%61,9
Antzerki lirikoa	55.742	%35,9	377.362	%38,7	9,78	%56,0
Objektu-antzerkia	26.629	%17,1	87.917	%9,0	5,09	%55,6
Zirkoa eta magia	1.773	%1,1	7.705	%0,8	5,58	%50,9
Musika-antzerkia	2.743	%1,8	9.689	%1,0	4,61	%49,0
Dantza	16.190	%10,4	135.962	%13,9	10,91	%46,2
Musika	0,0	%0,0	0,0	%0,0	0,0	%0,0
Beste batzuk*	6.587	%4,2	18.637	%1,9	3,56	%51,7
GUZTIRA	155.316	%100,0	976.067	%100,0	8,29	%56,1

(*) «Beste batzuk» kategoriaren barruan honako hauek sartzen dira: keinu bidezko antzerkia, barietate-antzerkia, performanceak, irakurketa dramatizatuak, eta sailkatu gabeko bestelako arte eszenikoak.

Gaztelaniazko ikuskizunek biltzen dituzte bertaratu kopuru eta bildutako diru-kopuru handienak jaialdien eskaintzari dagokionez, % 42,5 eta % 42,4 baitira, hurrenez hurren. Atzerriko beste hizkuntza batzuetan egindako ikuskizunek ere garrantzi handia dute (bertaratu kopuruari eta bildutako diru-kopuruari dagokionez) eta garrantzi hori bat dator nazio anitzetako konpainiek eta atzerriko konpainien ikuskizunek (gorago aipatu ditugu) duten bertaratu kopuruarekin.

35. irudia. Jaialdietara bertaratuak, bildutako diru-kopurua, okupazioa eta sarreraren batez besteko prezioa, ikuskizunaren hizkuntzaren arabera. 2007²

Hizkuntza	Bertaratuak		Bildutako diru-kopurua		Sarreraren batez besteko prezioa(€)	Okupazioa
	Abs.	%	Abs.	%		
Euskara	11.403	%7,3	33.444	%3,4	3,4	%55,5
Gaztelania	65.967	%42,5	414.138	%42,4	8,1	%58,9
Hitzik gabea	13.538	%8,7	118.204	%12,1	11,1	%41,4
Beste batzuk	64.408	%41,5	410.280	%42,0	8,9	%57,8
GUZTIRA	155.316	%100,0	976.067	%100,0	8,3	%56,1

1 Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulatuta dago; aitzitik, bertaratuaren guztizkoa kalkulatuzko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

2 Sarreraren batez besteko prezioa ordaintzen diren ikuskizunak soilik kontuan hartuta kalkulatuta dago; aitzitik, bertaratuaren guztizkoa kalkulatuzko, ordaindu duten ikusleak ez ezik gonbidatutakoak ere kontuan hartzen dira.

Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>> .



Argitaraldia: 1.a, 2010ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com

Lege-gordailua: VI 158-2010